

GAZTEBIDAIA

CANVAS ETA ENPRESAREN EREDUA



EGILEAK: Haizea Aizpuru, Asier Mejuto, Sabin Galdona, Oxel Urrusolo eta Nahia Gabilondo

SARRERA

Gure enpresaren izena Gaztebidaia da, eta gazteen bidaiak antolatzean espezializatuta gauden bidaia agentzia bat gara. Ehundaka eskolek aukeratzen gaituzte ikasturte amaierako bidaia antolatzeko.

2 urteko esperientzia dugu, eta urtero eskola berriak gehitzen dira gure bezeroen zerrendara. 400 bidai baino gehiago, 4.000 ikasle baino gehiagok bidaiatu dute gurekin eta normalean behin gure zerbitzuak berrantolatzen duten eskolek errepikatu egiten dute, guregan konfiatzen dutelako.

Gure bezeroei aholkuak ematen dizkiegu, helmugan egin dezaketen ororen inguruan, zein txango egin ditzaketen, zer gauza bisitatu ahal duten... Guzti horrengatik bezeroak erabat pozik geratzen dira gure zerbitzuekin.

Gure helburuak bat baino gehiago dira, garrantzitsuenak:

- 1) Ikasleek eta gazteek esperientzia ahaztezinak bizitzea da.
- 2) Segurtasuna eta dibertsioa uztartzea.
- 3) Gure zerbitzua erabiltzen duten gazteen gurasoek guregan konfidantza osoa izatea da.

Lehen aipatu dugun bezala, gaztebidaia enpresan, gurasoen lasaitasuna eta ikasleen ongizatea dira gure lehentasun nagusiak, horrengatik, gure taldeak zaintza eta segurtasun neurri zorrotzak eskaintzen ditu bidai osoan zehar.

Edozein arazoren aurrean, gure koordinatzaileek berehala erantzuten dute eta sor daitekeen edozein arazoren aurrean irtenbide egokia eskaintzen dute, bidaiaren arrakasta bermatzeko.

Amaitzeko, gure enpresak bisitatzeko hainbat toki desberdin eskaintzen ditu (Malta, Salou, Mallorca eta Menorca), baina gehienak, Europa barruan daudenak izaten dira. Gure programan, aisialdi seguru bat eman nahi dugu, gazte hauek, Europako hainbat toki ezagutzeaz gain, esperientzia sozial aberasgarri bat lortu ahal izateko.